



2019
TXOSTENA

 **alboan**

ONG · JESUITA · FUNDAZIOA

Agurra

Erabat arraroa egiten zaigu ALBOANen 2019ko Memoria-ren sarrera hau idaztea, COVIDen errealitateak, gaur egun, gure iragan hurbila eta oraingo momentuak erabat hartzen baititu. Badirudi pandemia honen aurretik ez zela beste-lakorik existitu. Hala ere, bizitza handia bazegoen krisialdi globalaren aurreko garaietan.

2019. urtean gure ekintzen bolumenak gora egin du. Orrialde hauetan ikus dezakezu ALBOANek garatutako ekintzen laburpena, mundu osoan 120 baino gehiago diren erakunde aliatu eta sareekin batera.

- Zuen laguntzari esker, garapenerako 225 proiektu aurrera eramateko partaide izan gara. Horrela, munduan zehar, 505.000 pertsonak eta beren familiek beren

bizi-baldintzak hobetzeko aukera izan dute. Bereziki azpimarratu ditugu gurekin aliantzak bideratu dituzten erakunde hauek: Latinoamerikako Migratzaileentzako Sare Jesuita, Errefuxiatuentzako Zerbitzu Jesuita, garapen ekonomiko alternatiborako COMPARTE sarea, Fe y Alegría Federazioa, eta India, Afrika eta Latinoamerikako bestelako hezkuntza eta gizarte erakundeak.

- 7.000 hezitzaile inguruk www.edukalboan.org erabiltzen dute gure plataforma berritua, eta 150 ikastetxek baino gehiagok praktikan lantzen dituzte gure proposamenak.
- Sare sozialetan daukagun presentzia gero eta handiagoa da; 21.000 pertsona baino gehiago dira ALBOANen jarraitzaileak (Facebook: @alboan, Twitter: @ALBOANongd; Instagram: @alboangaztesarea) eta



gure webgunee 400.000 bisita dituzte urtean zehar.

- Prestakuntza eta sentsibilizazio lanetan egin dugun jarduera ere areagotu da; %45ko igoera izan du. Horrela, 8.500 pertsonak ikasi dute gure jardunaldietan, online ikastaroetan, irakasgaietan edo hitzaldietan.
- Baliabideak sendotzen jarraitzen dugu, baita hainbat gai lantzeko prestakuntzak eskaintzen ere: hezkidetzak, kulturartekotasuna, migrazioak eta hospitalitatea, gatazkarik gabeko teknologia eta ekonomia alternatiboak.
- “Justice in Mining” (Justizia Meatzaritza) nazioarteko eragin-sarean izan dugun partaidetza sendotu egin da, hurrengo urteetarako ALBOANek lidergo globala hartu baitu.

Ekintza maila handi hori posible izan da pertsona askoren zintzotasun eta konpromisoari esker: 47 pertsona kontratatu izan dugu, 220 boluntario eta kolaboratzaile eta 5.500 pertsona baino gehiago izan dira dohaintzen bidez laguntza eman digutenak.

Baina, bestalde, badago kezkatzen gaituen alderdi bat: talde, erakunde eta pertsonen finantzaketa pribatuaren %9ko jaitsiera. Laguntza hori ezinbestekoa da, Herri Erakundearen Lankidetzak arloek babesten ez dituzten proiektu berritzaileei eta arretarik gabeko komunitate baztertuei laguntza eman ahal izateko. Gure ekintzak sendotzen jarraitzen dugu dohaintza-ezaile berriak lortzeko asmoz, baita erakunde berriek gure proiektuekin bat egiteko helburuaz ere.

Oso adierazgarria izan da 2019an Plangintza estrategikoko berria (2020-2025) onartzea. Bertan, gure Eginkizun berriztatua biltzen da:

Nazioarteko lankidetzarako GKE jesuita da ALBOAN, Euskadin eta Nafarroan. Ingurumen justizia eta genero-berdintasuna bultzatzeko herritartasun globala eraikitzearen alde dihardugu lanean. Beste erakunde eta pertsona batzuekin batera, egitura baztertzaileak, tokian tokiko mailan zein globalean, eraldatzeko eta harreman sozial eta ekonomiko berriak sustatzeko asmoa dugu.

Zalantzarik gabe, eginkizun horrek gidatu eta animatzen du gure lana, eta arreta osoa jartzen du gure munduan baztertuak diren pertsonengan.

Hauxe da ALBOANek 2019an zehar landu duen bizitza, eta horrek ere 2020ko martxoan heldu zen COVID krisialdiari ausardiaz aurre egiteko indarra eman digu. Pandemiak ez du geldiarazi gure lana. Aldez aurretik existitzen ziren desberdintasunak agerian utzi ditu pandemiak, eta milioika pertsonak bizi duten kalteberatasun eta baztertze egoera areagotu du. Testuinguru horretan, gure eginkizuna inoiz baino beharrezkoagoa da.

Erronka ezezagunen aurrean gaude, eta, horren ondorioz, gure erakundea berritu beharko dugu testuinguru berrietara egokitu ahal izateko. Aurrera egin nahian, sendotu behar izango dugu ALBOAN familian eta nazioarteko erakunde eta sare aliatuetan daukagun bizitza, estuago eta elkartasun handiagoz bat eginez, bizitza duina sortarazten jarraitzeko asmoz.



Nazioarteko Lankidetzaz

Afrika, Latinoamerika eta Asiako 21 herrialdeetan pertsona desplazatu eta errefuxiatuei, indigenei, emakumei eta nekazariak laguntza ematen diegu erakunde aliatuekiko elkarlanean. 2019an **504.495 lagun protagonista izan dira 225 egitasmoen bitartez.**

Giza mugimenduak areagotzen ari dira, eta prozesu horretan pertsona migratzaile, errefuxiatu eta desplazatuak dituzten baldintzak gero eta zailagoak dira. Herritartasun osoan bizitzeko zailtasun legalei gehitu behar zaie gaitzespen soziala, zeharkatzen dituzten lurraldeetan topatzen dutena. Eta hantxe, hain zuzen, irudikatzen zuten pertsona horiek bizitza egonkorra, indarkeriatik eta segurtasun-gabeziatik urrundutakoa, hots, beren etxetatik ihes egiteko arrazoiak izan zena. Horregatik, Migratzaileentzako Sare Jesuitarekin eta Errefuxiatuentzako Zerbitzu Jesuitarekin batera, lekualdatu beharreko egoeran dauden pertsonak laguntza ematen jarraitzen dugu, bai behar-beharrezko kontuetan, bai legeen eta alderdi psikologikoen eremuan. Harrera-komunitateekin ere aritzen gara, beldurrak eta gaitzespenak sortarazten dituzten aurreiritziak eta estereotipoak desegin, eta, horren ondorioz, elkarbizitza baketsua sortzeko asmoz.

Nekazarien aldeko babesa egiten jarraitzen dugu, askotan ez baitute erakunde publikoetako laguntzarik. Langile horien lanari esker, bermaturik dago beren komunitateen elikadura, baita hurbileko hirietakoa ere. Egunez eguneko diru-sarrerak lortzen dituzte haien familientzat. Gure laguntza duten ekoizte-ekimenetan emakumeak eta gazteak Garrantziko eragile bihurtzen ari dira **bidezkoagoak eta jasangarriagoak diren garapen ekonomiko-produktiboetako ekimenetan.**

Gure jarduera garatzen deneko testuinguruetan, **emakumeen aurkako indarkeria** da arazo larria eta iraunkorra. Horregatik, emakumei entzuteko prozesu sakona egin ostean, abian jarri ditugu beraientzat

bereziki bideratutako proiektuak: bai laguntza psikosozialean, bai diru-sarrerak lortzean, bizitza berria hasteko aukera izan dezaten.

Naturako ondasunen kontrola edukitzeko borroka indarkeria eta lekualdaketa sortzen jarraitzen du, eta ondasunen ustiapenak eragina zuzena du komunitateen bizitzan, ingurumenean desorekak ekartzeaz gain. Lurra eta ingurumena defendatzen dituzten elkarten liderrei laguntza ematen jarraitzen dugu, **bizitzaren eta ingurumenaren jasangarritasuna** bermatzen duten garapen-ereduak defendatzen baitituzte.

Erakunde Publikoek ez diete erantzunik ematen herritarrek dituzten arazoei, eta baztertzeko sentimendua gero eta handiagoa da. Egunero ikusten ditugu berri hauek: ustelkeria kasuak, inpunitatea, desberdintasuna edo eskubideen murrizketak. Horren haurrean, **mobilizazio soziala eta partaidetasuna** indartzeko ekintzak bultzatzen ari gara, eta ikus dezakegu bertan gazteen protagonismoa aurrera doala eta, halaber, beharrezkotzat jotzen ditugu ekintza horiek, orain inoiz baino gehiago, demokraziari zilegitasuna kendu nahi zaioneko testuinguruetan.

Testuinguru guztietan **pertsona kalteberenak defendatzeko erabateko konpromisoa duten erakundeekin egiten dugu lan:** emakumeen kolektiboak, herri indigenak, pertsona migratzaileak, errefuxiatuak, desplazatuak eta nekazariak. Erakunde horiek egunero laguntza emateko prest daude, egoera larriak defendatu eta horien berri emateko; eragin politikoa lortu nahian, beste elkarte batzuekin lankidetzan aritzea eta proposamen alternatiboak aurrera eramateko, aintzat hartuta **arazoak eta joerak gero eta globalagoak eta erabat interkonektatuak direla, baina beren eraginak desberdinak eta bidegabeak.**



COMPARTE sarea

COMPARTE sarea ikaskuntza eta ekintzarako komunitatea da. Hemeretzi erakundek osatzen dute 2011. urtetik eta bere apustua da Latinoamerikako zortzi herrialdetan ekonomia- eta produkzio-alternatibak bultzatzea. Pobrezia eta baztertze egoeran dauden familia eta komunitate ekoizleen bizi-baldintzak hobetzea da bere helburua.

COMPARTE sareko Idazkaritza Teknikoak, sareak ALBOANen eskuetan ipini duelarik, laguntza ematen dio sareari. Urteko gertaera garrantzitsuak hauek izan dira:

- Ekainean, sarearen **8. topaketa** egin zen Chiapasen, Mexikon. Bertan, hirurogei pertsona bildu ziren eta jatorrizko erakundeak askotarikoak izan ziren: gizarte zentroak, komunitate ekoizleak, Jesusen Lagundiaren sektore soziala, eta Latinoamerika, Kanada, Espainia, Kenya eta Estatu Batuetako 10 herrialdetako unibertsitate eta erakundeak. Sarean, itxaropenerako haziak, jakintzak, aukerak eta konfiantza ereintzen ditugu bestelako logika ekonomiko batzuk, humanoagoak eta jasangarriak, posible direlako ustetan.
- **“Un viaje colectivo. Planes de negocio social”** dokumentua argitaratu zen Mondragon Unibertsitatea-Lanki-rekin. Bertan biltzen dira 2017-2018 urte bitartean lortutako ikaskuntzak, ekonomia sozial eta solidarioko ekimenenarako lankidetzan sortutakoak.
- **Ekonomia Sozial eta Solidariarako prestakuntza** garatu zen lankidetzan: REAS Euskadi, IMCA eta Suyusama Kolonbiako sareko zentro sozialetarako.

Hezkuntza Eraldatzailea eta Herritartasun

Sendotu egiten da Hezkuntza Eraldatzaile eta Herritartasun Globalarekiko konpromisoa, pertsona, erakunde aliatu eta ikastetxe askoren sare hedatuarekin batera. Nabarmendu nahi ditugu hainbat partaide: **EDUKALBOAN** elkartasunaren aldeko hezitzaileen Sarea, **ALBOAN-Gazte Sarea**, eta berrehun pertsona boluntario eta laguntzaile baino gehiagok osatutako taldea.

HEZKUNTZA ERALDATZAILEA ETA BERRIKUNTZA

- Etapa berria zabaltzen da **Hezkuntza Eraldatzaile eta Herritartasun Globalaren aldeko Mugimendu**rako. Mugimendu horretan elkarrekin ari gara lanean Entreculturas, InteRed eta Oxfam Intermón. AECID Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Agentzia Espainiarrak 4 urteko hitzarmenerako finantzaketa eman zuen GJH Garapen Jasangarrirako Helburuen 4.7 jomuga lortzen laguntzeko helburuaz. Elkarlan horren erakunde liderra izatearen ardura osoa hartzen dugu gure gain.
- **Eduk-alboan** komunitatearen webgune berria atera dugu irakasleen zereginak errazteko asmoz. Horretarako, baliabideak eta materialak eskaini ditugu, balio hauek sortzearen: herritartasun kritikoa, pertsona errefuxiatu eta migratzaileekiko kulturarteko gizarte abegitsuak, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, eta ingurumenari buruzko kontzientzia. JadaniK, 7.000 hezitzailek baino gehiagok erabiltzen dute webgunea.
- **Eraldaketa Sozialerako Heziketa Berrikuntzako Ikastaroa** antolatzen jarraitu dugu, EDUCSI, Fe y Alegría eta Entreculturas erakundeekin batera. Ardatz nagusia da eraldaketa sozialerako heziketa berrikuntza eta sare bidezko lana, online eta zuzeneko moduluen bitartez.

KULTURARTEKOTASUNA

- **Mugetatik Haratago** kulturartekotasun, migrazio eta babeserako proposamenak bidean jarraitu du hiru dimentsio hauetan: irakasleen prestakuntza; ikasleen bizipen-ikaskuntza Loiolako Santutegian izan-dako hiru eguneko egonaldian; eta sentsibilizazioan eta mobilizazioan eskaintzeko hezkuntza komunitatearen inplikazioa. 2018-2019 ikastur-tean, 21 ikastetxek eta 1.100 gaztek hartu zuten parte.
- Nafarroan, **Mugetatik Haratago** proiektuaren bigarren edizioan, gunea izan zen emakume eta neskato errefuxiatu eta migratzaileen



Globala

errealitatea. Sei prestakuntza-tailer eratu ziren 118 hezitzaileekin, eta laguntza eman zitzairen 20 ikastetxeri.

- **CHANGE proiektuari** eman genion hasiera, Europar Batasuneko beste zortzi herrialderekin batera, eta Errefuxiatuentzako Zerbitzu Jesuita Europarrak koordinatuta. Proposamen pedagogikoa da pentsamendu kritikoa, enpatia eta gazteen partaidetasuna garatzeko, migrazio, babes eta harreraren arloetan.
- Urrian, **Besozabalik** jardunaldiak egin genituen, pertsona errefuxiatu eta migratzaileei harrera emateko esperientzia positiboak ezagutzeko, Bilboko Ellacuría Zentroaren eskutik.

HEZKIDETZA

- Aurrera goaz 15 ikastetxeri eskaintzen diegun laguntzan, eta Azkoitiako Udalaren Hezkuntza ez formalaren sailean ere bai. Bertan, **auto-diagnosirako prozesuan** dihardute.
- **Online ikastaroaren** hirugarren edizioa egin genuen, eta 32 pertsonak parte hartu zuten.
- **Hezkidetzarako Klaustro Birtua-lean** partaide izaten jarraitu genuen, eta horrela sare-lana egin dezakegu hezkidetza bultzatzeko konprometiturik dauden bestelako erakundeekin.



BABESA ETA BEHARTUTAKO MIGRAZIOA

- Maiatzean, ehunka pertsonak egin zuten Loiolako Santutegirako bidea, **“Caminos de Hospitalidad”** delako mugimenduan parte hartzeko eta Europa abegitsuagoa erreibindikatzeko, pertsona migratzaileen eskubideak errespetatuak izan daitezen.
- San Ignacio ikastetxe eta Loiola Zentroarekiko lankidetzan, Iruñean antolatu genuen **Pertsona errefuxiatu eta migratzaileen aldeko 4. Jardunaldi Solidarioa**. Bertan, 500 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte eta, amaitu ostean, bazkari solidarioa egin zen Erdialdeko Amerikako Migratzaileentzako Sare Jesuitaren proiektu bati laguntza emateko.



- **Sentsibilizazio**erako ekintzak bultzatzen jarraitu dugu, modu ezberdinek erabilia: hitzaldiak, pertsona migratzaile eta errefuxiatuen testigantzak eskaintzea, ikastetxeetan egindako prestakuntzak, Stand-By erakusketaren mailegua eta antzezlan laburrak.

GATAZKARIK GABEKO TEKNOLOGIA

- Kanpainaren helburua da jakinaraztea **zer-nolako lotura duten, alde batetik, gure teknologia ekoizteko behar diren mineralen erauzketak eta, bestetik, giza eskubideak urratzeak, baita erauzketa egiten deneko lurraldeetako komunitateen ingurumen eskubideak ere.**
- Kolonbiako testuinguruan, eduki berriak eta ekintzak sortu genituen, **urrearen erauzketa**ren eremuan, hor ere loturik baitaude erauzketa mota hori, komunitate indigenen eta jatorri afrikarreko ondorengoen

eskubideak urratzea, teknologia berriekiko konexioa eta emakumeen aurkako indarkeria. Azaroan, nazioarteko jardunaldi hauek antolatuta genituen: *Urreak ezkututzen duena: Kolonbiako gatazka-mineralak eta bakea eraikitzea*; ikerketa hau ere argitaratu genuen: Kolonbiako urre-meatzaritza eta *Kordoba Hegoaldeko tokiko komunitateak, baita Mugikor Etikoa, existitzen da?* gida ere; ikusentzunezko ekoizpen batzuk egin genituen informazioa zabaltzeko eta sentsibilizatzeko; 2.000 pertsoengana iritsi ginen formakuntza saioetan.

- **“Erosketa Publiko Etikoa”** sinaduren bilketa abian jarri genuen, *visibles.org* plataformaren bitartez. Helburua da herritarren laguntza lortzea, udalei eta administrazio publikoei eskatzeko, teknologia erosterakoan, erabil ditzatela irizpide etikoak, giza eskubideak urrututa lortu diren mineralen produktuak murrizteko.

GAZTE SAREA

- **Gazteen 30 taldek** baino gehiagok prestakuntza jaso zuten eta mobilizatu ziren, ondoko arlo hauek landu zituztelarik: Gatazkarik Gabeko Teknologia, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, kulturartekotasuna, gizakien mugimenduak, partaidetza eta boluntariora, garapen ekonomiko alternatiboa, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua.
- **Walikale Webquest** lehiaketa egin zen Gasteizen Egibiderekin batera, Gatazkarik Gabeko Teknologia kanpainaren barnean.
- **Gazte Sarearen 6. Topaketan**, 80 pertsona baino gehiago bildu ziren Loiolan, “Más allá de las fronteras-Mugetatik Haratago” goiburua zutelarik. Kulturartekotasun, migrazio eta babesari buruzko proposamena ezagutzeko aukera izan zuten, eta partaideak ere izan ziren mobilizazioetan eta jarduera ludikoetan.



BIDEZKO MERKATARITZA ETA KONTSUMO ARDURATSUA

- **Bilboko KIDENDAK, Gasteizeko BideBidean-ek eta Iruña eta Donostiako elkarteek** aktiboki parte hartu genuen, bai Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Egunean, bai urtean zehar hiri haietan eta beste herri batzuetan egindako jardueretan.
- Urrian, **Gastro Solidarioa** gauzatu genuen Gasteizen. Bertan, uztartu ziren Kolonbiako nekazarien komunitate kalteberekiko elkartasuna eta produktu ekologikoen eta 0 kilometrokoen kontsumoa sustatzea. Laguntza ugari izan zuen ekitaldiak: tokiko sukaldariburuak, ostalaritzako taberna eta jatetxeak, elikadura enpresak, ostalaritzako eskolak eta merkataritza jasagarri eta slow food elikadurarekin lotura duten elkarteak. Pertsona ugari ere parte hartu zuten: 300 lagunek baino gehiagok dastatu zituzten pintxoak eta, aldi berean, komunitateei laguntza ematen ziten.
- **Kafe sorotik Kikarara** proiektuaren barnean, gosari solidarioa antolatu genuen, merkataritzako produktuak erabilita, Deustuko Unibertsita-

teko Donostia-campusean. Ekonomia sozial eta solidarioarako bestelako aukerak ezagutarazi genituen, baita kontsumo kontzientea eta arduratsuaz ohartarazi ere. Donostian ere antolatu genituen bi Brunch-Kafe solidario eta bertan egon ziren Kolonbiako Suyusama-Villaloyola eta Capeltic-eko ordezkariak, Deustuko Business School eta Gipuzkoako Ostalaritzako Enpresarien Elkartearen lankidetzak izan zutelarik.

GARAPEN ALTERNATIBOA ETA GIZARTE EKONOMIA SOLIDARIOA

- REAS-Euskadirekin batera, **Enpresari buruzko Mintegi iraunkorra** garatu genuen, enpresa justizia sozioanbientalerako funtsezko eragileztat hartua baitzen enpresa. Bertan parte hartu zuten Euskadiko eremu unibertsitario, sozial eta enpresarialeko ordezkariak, eta helburua izan zen esperientziak partekatzea eta aukera berriak eraikitzeko proposamenak sortzea.
- **Ekonomia Solidarioari buruzko online ikastaroa**ren bigarren edizioa egin genuen, REAS Euskadirekiko lankidetzan, 22 pertsonak parte hartu zutelarik.
- Donostiako Business Schoolekin batera, prestakuntzarako hitzaldiak eskaini genituen, gaiak ondoko hauek izanda: **Elikadura Burujabetza, Peruko kakaoaren ekoizpena eta Kolonbiako kafearen produkzioa.**





ETA HORREZ GAIN...

- Martxoan, Entreculturasekin batera, **Venezuelarekiko elkartasunerako kanpaina** antolatu genuen, kontuan hartuta herrialdeko indarkeria eta krisialdi politikoa, ekonomikoa eta soziala. Laguntza bideratua izan zen Fe y Alegría eta Migratzaileentzako Sare Jesuita erakundeen bitartez.
- Ekainean, **Education 4 all-educación para todas** ekimenarekin hasi ginen. Helburua izan zen, **Indiako Gujeraten**, dalit eta adivasi neskei kalitatezko hezkuntza eskaintzea. Eta, azaroan, **Mujeres Unidas** ekimena, Gujeraten ere emakumeen kooperatiben garapena sustatzeko asmoz.
- Latinoamerikako **Fe y Alegría** herri hezkuntzarako mugimenduari emandako laguntza sendotzeko, kanpaina batzuk bultzatu

genituen: **Venezuela-Elkartasuna Sendotu**, ekainean, eta Kongoko ED, Txad eta Madagaskarreko **“Neskatoen hezkuntza”**.

- Bai Bilboko campusean, bai Donostiakoan, Deustuko Unibertsitatean **Herritartasuna eta Eraldaketa Soziala** irakasgaia eman genuen hirugarren urtez.
- **Sentsibilizatzeko eta prestakuntza irekirako 30 jarduera** burutu genituen Euskadin eta Nafarroan, mila pertsonak baino gehiagok parte hartu zutela; beste **8.500** lagunek hainbat **formakuntzetan**; eta aldizkako komunikazioa mantendu genuen gure oinarri sozialarekin eta herritarrekin, baliabide ugari erabilita: **aldizkariak, buletin elektronikoak, webguneak, blogak, sare sozialak eta komunikabideak**.

Charla: desafíos de la Amazonia



Txosten ekonomikoa

Urtearen amaieran, jarduera-kopurua **9.945.478 €**-koa izan zen. Finantzaketa publikoa handiagoa izan da-eta, **%4,5 igo da kopurua 2018ko ekitaldiaren aldean**. Defizita 22.498 €-koa izan da: alde batetik, dohaintza pribatuak murriztuagoak izan direlako, eta bestetik, fondo publikoez finantzatzeko zailak diren eragin sozial handiko proiektuekiko konpromisoa mantendu dugulako.

Finantzaketa publikoen iturburuak diru-sarreraren %47ra heldu ziren, gure proposamenei laguntzen dieten erakunde publikoen banaketa dibertsifikatua izan delarik.

Fondo pribatuak %13 jaitsi ziren, 2018. urtearen aldean. Laguntza ematen diguten pertsona fisikoen artean, %44k aldizkako kuoten bidez eskaintzen dituzte beren ekarpenak, hhorrela gure ekimenei egonkortasuna eman ahal diegu.

Horrez gain, 2019an, aurreko urteetan jasotako **legatu solidarioak** ere erabili ditugu, populazio kalteberei laguntzeko hain garrantzitsuak direnak.


Gastuen banaketari dagokionez, % 76 izan da Nazioarteko Lankidetzarako proiektuak bideratzeko fondoen portzentajea. Apustu egin dugu herritartasun globala eraikitzeko, eta horretarako zabaltu dira gure ingurunean sentsibilizazio, prestakuntza, ikerketa eta eraginerako proposamenak, %14ko igoera izanda. Halaber, komunikazio eta administrazioarako lanei dagokien gastuari eusteko ahaleginetan aritu gara, eta hori islatzen da aurrekontu osoaren %10 portzentajea mantentzean.

Kanpoko auditoretza (*Diecinueve auditores SLP*) izan dugu gure kontuak aztertzeko. Horrela, 2017. urtean berritu genuen **Gardentasun eta Gobernu**

Onaren Zigilua, GKEen koordinakundeak bultzatutakoa eta 2020. urtera arte indarrean dagoena. Tresna horren bidez, gure sektorearen berezitasunak biltzen dira, jarduerak eta funtzionamendua aztertzeko, auditoretza independenteen sinadurek eginak direlarik.




EKARPENEN JATORRIA




- **Ekarpen pribatuak: 4.800.156 €**
- **Ekarpen publikoak: 4.706.208 €**
- **Bestelako diru-sarrerak: 439.114 €**

ARLOEN ARABERAKO GASTUAK




- **Nazioarteko Lankidetzara %76**
- **Ekintza Publikoa eta Partaidetza %14**
- **Komunikazioa %5**
- **Kudeaketa %5**

SEKTOREEN ARABERAKO GASTUAK



- **Hezkuntza %26**
- **Garapen sozio-ekonomikoa %21**
- **Gizarte zibila sendotzea %20**
- **Generoa %18**
- **Laguntza humanitaria %15**

EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERAKO GASTUAK



- **Latinoamerika %52**
- **Afrika %27**
- **Asia %21**

2013-2019KO DIRU-SARREREN BILAKAERA

2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
7.770.677	8.523.700	9.002.463	9.575.682	9.611.516	9.515.735	9.945.478

